6900

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 20koa, Hezkuntza sailburuordearena, Lanbide Hastapeneko programen bigarren kurtsoak garatzen dituzten irabazi xederik gabeko entitateei diru-laguntzak emateko dena, 2008-2009 ikasturtean zehar.

Lanbide Hastapeneko hezkuntza eta prestakuntza-egitasmoetako bigarren kurtsoak garatzen dituzten irabazi xederik gabeko entitateei diru-laguntzak emateko prozedura arautu eta irizpideak ezartzen ditu 2008ko ekainaren 17ko Ebazpenak (2008ko uztailaren 18ko EHAA).

Eskabide-espedienteak aztertu ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Erabaki honetako I. eranskinean adierazten diren entitateei, bertan zehazten diren taldeentzat eta adierazitako zenbatekoez laguntzak ematea.

Bigarren artikulua.– 2005eko maiatzaren 18ko Aginduaren 12.3 artikuluaren arabera (2005eko maiatzaren 20ko EHAA), diru-laguntza hori baldintzapean dago; izan ere, diru-laguntza zenbat ikasle-talderako ematen den, talde-kopuru hori osatu beharko da, eta ikasle-taldeek 4. eta 5. artikuluetan aipatzen diren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte; bete ere, diru-laguntza zer ikasturterako eskatu den, ikasturte horretako urriaren 15a baino lehen.

Hala izango ez balitz, emandako diru-laguntzaren azken kopurua esandako baldintzak betetzen dituzten ikasle-talde kopuruaren arabera gutxituko litzateke, aipatutako aginduaren 16. artikuluan ezartzen den bezala.

Hirugarren artikulua.– Diru-laguntza hiru epetan ordainduko da. Lehengoa diru-laguntzaren % 34 izango da eta eman izanaren behin betiko jakinarazpena jaso bezain laster egingo da, edo jakinarazpena jaso eta 15 egunera, diru-laguntzari uko egiten ez badio. Bigarrena kopuru guztiaren % 56 izango da eta 2009ko ekitaldiaren hasieran ordainduko da, 2005eko maiatzaren 18ko Aginduaren 14.6 artikuluan aipatutako agiriak aurkeztuz gero. Gainontzeko % 10a ikasturtearen bukaeran ordainduko da, aipatutako aginduaren 14.7 eta 15.1 artikuluetan aipatutako agiriak aurkeztuz gero.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 20a.

Hezkuntza sailburuordea,
PEDRO M.ª OCHOA BERNALES.

6900

RESOLUCIÓN de 20 de noviembre de 2008, del Viceconsejero de Educación, por la que se otorgan ayudas económicas a entidades que, sin ánimo de lucro, desarrollan segundos cursos de Programas de Iniciación Profesional, durante el curso 2008-2009.

La Resolución de 17 de junio de 2008 (BOPV de 18 de julio), del Viceconsejero de Educación convoca para la obtención de ayudas económicas a las entidades sin ánimo de lucro, para desarrollar segundos cursos de programas de Iniciación Profesional, como concreción de los programas de Garantía Social.

Examinados los expedientes de solicitud correspondientes,

RESUELVO:

Artículo primero.– Conceder subvenciones a las entidades que se relacionan en el anexo I de la presente Resolución, para los grupos que se determinan y por las cantidades en él expresadas.

Artículo segundo.– De acuerdo con el artículo 12.3 de la Orden de 18 de mayo de 2005 (BOPV de 20 de mayo de 2005) esta subvención estará condicionada a la formación del número de grupos de alumnos/as, para el que se otorga la subvención, siempre que reúnan las condiciones mínimas señaladas en los artículos 4 y 5, antes del 15 de octubre del curso académico para el que se solicite la subvención.

En caso contrario, la cuantía final de la subvención concedida se reducirá proporcionalmente al número de grupos que reúnan las condiciones mínimas antes señaladas, en los términos establecidos en el artículo 16 de la mencionada Orden.

Artículo tercero.– La subvención se hará efectiva en tres pagos. El primero, por un importe del 34% del total de la subvención, se hará con carácter inmediato a la aceptación de la notificación definitiva de la concesión de la subvención o transcurridos 15 días desde su recepción sin haber renunciado a la misma. El segundo, por un importe del 56% del total, al comienzo del ejercicio 2009, previa presentación de la documentación a la que hace referencia el artículo 14.6 de la Orden de 18 de mayo de 2005. El restante 10% se hará efectivo al final del curso académico, previa presentación de la documentación a la que se refieren los artículos 14.7 y 15.1 de la mencionada Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra esta Resolución se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, ante el Excelentísimo Sr. Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2008.

El Viceconsejero de Educación,
PEDRO M.ª OCHOA BERNALES.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

EMAN DIREN LAGUNTZAK / *AYUDAS CONCEDIDAS*

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA*

Entitateak *Entidades*	Talde-kopurua *N.º grupos*	Dirulaguntzak *Ayudas económicas*
Centro Juvenil M.ª Auxiliadora	1	30.600,96

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA / *TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA*

Entitateak *Entidades*	Talde-kopurua *N.º grupos*	Dirulaguntzak *Ayudas económicas*
Asociación Margotu	4	122.403,84
Fundación Adsis	2	61.201,92
Fundación Peñascal	12	367.211,52
Fundación Síndrome de Down del País Vasco	1	30.600,96
Gremio de Artesanos Confiteros y Pasteleros de Bizkaia	2	61.201,92